

ATAZAREN IDENTIFIKAZIOA, DEFINIZIOA ETA PLANTEAMENDUA

Helburua:

Puntu honetara heldu bazarete, horrek esan nahi du dagoeneko erabakita duzuela hurrengo lanketa zein gaiaren inguruan egingo duzuen. Orain BURUTUKO DUZUEN ATAZA behar bezala IDENTIFIKATU, DEFINITU eta PLANTEATZEA tokatzen zaizue. Zeregin hori, modu kooperatiboan burutuko dugu, guztion ekarpenekin.

Ataza definitzerakoan, kontutan hartu ondorengo irizpideak:

- ZER EGIN erabaki behar duzue. Alegia, proiektua amatuta geratzen da atazan EGIN BEHAR DUZUENA EGINDA GERATZEN DENEAN.
- Aurretik dituzuen ezagutzak mobilizatu behar ditu; kontua ez da ZER DAKIZUEN orain, kontua da ZER IKASIKO DUZUEN bukatutakoan.
- IZAN ORIGINALA, erabili imajinazioa! Ataza erakargarrienak sormen-prozesu sakon eta serioen ondorioa izaten dira beti.
- Atazak bizi duzuen gertuko errealitatearekin erlazioa izan behar du.
- Ez joan urrutiegi. Ataza egingarria izan behar da. Ez dago frustrazio sentsazio handiagorik aurretik zehaztutakoa egiteko gai ez garela izan baino. Arrakastarako aukera eman behar da!

Faseak

- Ariketarekin hasi baino lehen, irakurri ondo idatzita datorren guztia.
- **1. fasean** norberak burutuko du goiko koadroan adierazitakoa. Bere ekarpena I. eranskinetako goiko koadroan jaso beharko du. Iraupena: 15 minutu.
- **2. fasean** bikoteka elkartuko zarete. Zuen ekarpenak elkarren artean kontrastatu ondoren, biona izango den atazaren definizio bakar bat jasoko duzue. Proposamen hau I. Eranskinaren bigarren koadroan jasoko duzue. Iraupena: 30 minutu
- **3. fasean** aurrekoan egindakoa errepikatu beharko duzue baina oraingoan talde osoan. Taldeko proposamena I. Eranskinaren hirugarren koadroan jasoko duzue. Iraupena: 30 minutu

Amaitutakoan, komenigarria izango litzateke definitu duzuen ataza ebazteko **proiektuari izenburu bat ipintzea**. Ea zerbait originala okurritzen zaizuen!

Jarraibideak:

1. Planteatu zaizuen zeregina ondo ulertu duzuela garbi eduki behar duzue. Zalantzarik baldin baduzue, eskatu argibide gehiago.
2. Jasoko dituzuen hiru fitxetatik lehenengoan, ariketaren goiko hiru faseetan lortuko dituzuen ekarpenak jasoko dituzue; lehenengo koadroan zuena, bigarrean bikoteka erabakitakoa eta azkenekoan, talde osoan jasotakoa.
3. Ezinbestekoa da I. fasean guztiok parte hartzea. Guztiok eman behar duzue zuen iritzia, guztiok egin behar duzue zuen ekarpena. Ahalik eta proposamen gehiago jaso, orduan eta interesgarriagoa ebaztu beharko duzuen ataza.
4. Behin I. fasea amaitutakoan, bikoteka jarriko zarete atazaren definizio komun bat zehazteko asmoz.
5. Tarte bat hartuko duzue bikotekidearen ekarpena entzuteko. Bukatu duenean bere ekarpena bigarren fitxaren goiko koadroan idatziko duzu eta bakarka, sakon analizatuko duzu.
6. Azpian, zure bikotekidearen proposamenaren alderdi sendoak eta ahulak identifikatzen saiatuko zara eta erdiko bi koadroetan idatziko dituzu. Bukatutakoan alderatu itzazu alderdi hauek zure proposamenarekin eta saiatu ondorio eraikitzaileak ateratzen.
7. Jarraian, bigarren fitxa horren azpian, zure kidearen proposamenak dituen ahulguneak saihestu edo konpontzeko, zure hobekuntza proposamenak idatzi.

8. Bikotekidearekin berriro elkartzeko ordua da. Aztertu itzazue elkarrekin bion hobekuntza proposamenak. Oso garrantzitsua:
 1. Txandak errespetatu; ez hitz egin biok batera.
 2. Arretaz entzun zure lagunak esandakoa.
 3. Enpatikoa izan: ahalegindu bere lekuan jartzen eta bere argudioak ulertzen.
 4. Zure txanda heltzen denean, ondo arrazoitu zure ekarpenak. Arinkeriekin zaila izango da zure bikoteak zure ekarpenak onartzea.
9. 2. fase honekin amaitzeko, zuen atazaren deskribapen bateratua lehenengo orriaren bigarren koadroan jasoko duzue.
10. Orain talde osoa elkartu eta guztion artean atazaren behin-betiko definizioa osatuko duzue. Prozesua 2. fasean zehaztutakoaren berdina izango da. Amaitutakoan, osatu lehenengo eranskinaren azken koadroa.

I. ERANSKINA: ATAZAREN DEFINIZIOAK

1. fasea: Norberaren atazaren definizioa

2. fasea: Bikotearen atazaren definizioa

3. fasea: Taldearen atazaren definizioa

2. ERANSKINA: BIKOTEKIDAREN PROPOSAMENAREN ANALISIA

Zure bikotekideak azaldu duen diseinuaren laburpena

Proposamenaren Indarguneak	Proposamenaren Ahulguneak

Zure taldekideak proposatzen duena hobetzeko proposamenak

3. ERANSKINA: BESTE BIKOTEAREN PROPOSAMENAREN ANALISIA

Beste bikoteak azaldu duen diseinuaren laburpena

Proposamenaren Indarguneak

Proposamenaren Ahulguneak

Zure taldekideak proposatzen duena hobetzeko proposamenak